



Esp.kodea: 2018KKUL0020

Gaia: San Juan jaietako ekitaldiak Udaletxe
balkoi nagusitik ikusteko zozketa egitea
Hasiera eguna: 2018/05/30

ALKATETZAREN ERABAKIA N18/0622

San Juan jaietan Udaletxeko balkoitik hiru ekitaldi ikusteko aukera eskaini nahi diegu herritarrei, izena eman dutenen artean zozketa eginez. Beharrezkoa denez izen ematea eta zozketa arautuko duten oinarri-arauak finkatzea, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe **erabaki dut** oinarri arau hauek onartzea:

■ Zozketaren helburua

Izena eman dutenen artean herritarrak ausaz aukeratzea Udaletxeko balkoitik 2018ko San Juan jaietan, ekintza hauek ikusi ahal izateko:

- Hurren danborrada, ekainaren 16an
- Errementari Dantza, ekainaren 23an
- Nagusien danborrada, ekainaren 23an

■ Izena ematea

- Non: Udalaren webgunean (www.arrasate.eus) eta BAZen
- Noiz: 2018ko ekainaren 1etik 10era

■ Zozketa

- Zozketa egingo da ekainaren 11n

■ Zozketaren berri ematea:

- Irabazleei jakinaraziko zaie telefonoz, posta elektronikoz edo SMS bidez.

■ Izena emateko baldintzak:

- Arrasaten erroldatuta egotea
- 16 urtetik gorakoa izatea

■ Zozkatuko den toki kopurua:

- Ekintza bakoitzeko 15 toki bikoitzak; balkoian uneoro gehienez 30 lagun egon ahal izango dira eta

Kodea	N18/0622	Udala	ARRASATE	
Data	2018/mai./30	CUDO	000.0055.AAAA60YT.H	
URL	https://munigex.net/r/eu/55/AAAA60YTH			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2018KKUL0020

Gaia: San Juan jaietako ekitaldiak Udaletxe
balkoi nagusitik ikusteko zozketa egitea
Hasiera eguna: 2018/05/30

- 16 urtetik beherako haurrak nagusi batekin egon behar dira. Hortaz, 16 urtetik gorakoak eman behar du izena
 - Aukeratuak ezin izango du ekintza baten baino gehiagotan parte hartu
- Irabazleak Udaletxeko balkoira joateko:
- Irabazle suertatu direnak Udaletxeko sarreran agertu beharko dira NANarekin egun eta ordu hauetan
 - ✓ Haurren danborrada ikusteko ekainaren 16an. Ordua: 19:30
 - ✓ Errementari dantza ikusteko, ekainaren 23an. Ordua: 22:00
 - ✓ Nagusien danborrada ikusteko ekainaren 23an. Ordua: 23:30

Arrasate, 2018ko maiatzaren 30a

Alkatea

María Ubarretxena Cid

Kodea	N18/0622	Udala	ARRASATE
Data	2018/mai./30	CUDO	000.0055.AAAA60YT.H
URL	https://munigex.net/r/eu/55/AAAA60YTH		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

